Tatuaia bat ene begietan

Txili Lauzirika

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2008 Txili Lauzirika
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2008ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

$Mx...xu$

1

La mémoire est le miroir
où nous regardons les absents.

Joseph Joubert

BART

bart arratsean
Alosko dorrean
ilargia lokartu zenean

bart arratsean
azken kanpaiak
astiro aditzen zirenean

hitzak ehuntzen
jesarri nintzen
kandela argitan

belarrira esaten
ausartu ez nintzen
zuretzako hitzak

KAMIXETA URDINA

butano koloreko galtzak
jantzita zabiltzanean
        kamixeta urdinarekin
        ikusten zaitudanean
ene ezpain tristeak zentzuzko
ezer esan ezinik dabiltzanean
        esku eta belaunak dardaraz
        dantzan hasten zaizkidanean

laztana

zuri begiratzeko indarrik ez dudanean
utopia iruditzen zait
        zure muxuen zapore
        eta kolore berekoa
masail gorritu hauen erantzulea
bakarra eta faltsifikaezina
        bat-batean lehertzen den
        zapata kaxa baten antzekoa

ERNAMUINOTAN

Denboraren elastikotasunaz mintzo ginen,
gu erloju gabeok,
patuaren aldarte ona
poltsikoetan gorde litekeelakoan.

Gure solasetan pilatzen diren hitzek
dakartzaten zentzugabetasunetan
etorkizunak marraztu nahian
jarduten genuen trakets,
zurbiltasunez jantzitako trapezistak
gertukotzat sentituz
izu zuriz hesitutako eremuetan,
gure baitan gatibatzen diren lekuetan.

Zure leiho horien azpian
gordetzen diren paradisuetan
ezkutatu nituen ametsak,
bizitzaren saminak eta herrak
jazartzen gaituztenerako,
ezer esan gabe elkarrekin izateko
besarkada askaezinetan.

LANGILEAK

Pattarrak goldaturiko zintzurren antzera
eskuak garraztuak dituzten obra gizonek
ez diete gehiegizko arretarik jartzen
eguzkiak zenbatzen dituen urtaro aldaketei,
udazkeneko hosto eroriek grabitatearen
legearekin izan dituzten harremanei buruz
txindurri beltzaranak esan ditzakeenez beste.

Beren atzera-aurreretan zentratzen dira,
erlojuetako hortzak eta orratzak bailiran
errotazio eta zirkularitate etengabeetan,
diruaren joan-etorri eta beharrizanak aparte
bizitzan bestelako funtzio eta utilitaterik
ez balu bezala haien existentzialitateak,
berauen aurpegien zimurretan leitu ahalko
balira bezala jardun filosofiko sakonenak
ispilu aurrean lanera orduko bizarra egitean.

MUTU DIRAUTE

Mutu diraute telefonoek
maitaleen gau ilunean.
Urtu egin dira izebergak
tximinoak munduaz jabetzean.
Pailazo aurpegiak lurrera erori arren
mutu diraute lekukoek
arrain begiz harriturik.
Esku gabeko figura grekoekin
solasean dihardute amets mutanteek
oxigeno faltaren zorabioaz eztabaidan.
Minotauro bisaiaz, akiturik,
ilusioak birrindu zaizkio Sokratesi.
Zotinka eta marmarka sumatzen zaio:
«Maitaleen ezpainak pozoitu dituzte
amodioa akabatu nahian».

—Ez al dituzu haurren irrietan
sagarrondo zuriak ikusten?
—Asfaltatu egin berri dituzte
sentimenaren bide galduak.
—Oraintxe entzun dut irratian
kontrolak ezarri dituztela bidegurutzeetan.

Eta zu ikusten zaitudanean
barrenak eztanda egiten dit,
mutu gelditzen naiz
zenbat maite zaitudan
adierazi ezinik, lotsaturik,
disimulatu nahian,
lurrean zerbaiten bila dabiltzan
haurren papera antzezten.

HAURRAREN KEZKAK

Parkeetako irudiak negarrez ari dira
amoranteek jada bisitatzen ez dituztelako

Liliekin amesten zuen mutikoa tristurak akabatu du
sikateak nonbait ilusioak apurtu zizkion

Enarak ere ez dira pausatzen etxeko atarian
atzerrira joan omen dira bizi hobe baten bila

Amak ez ditu otartekoak egunkari orriz biltzen
aitaren lantegia zarratu zutenetik

Aittittak lez koloretako itxaropena jaten dugu
pilulak onak direla esan duelako osagileak

Eta ikastolako maistrak agindu du biharko denok
eraman behar dugula Afrikako mapa

baina guk etxean telebistarik ez dugunez eta
niri kalera bakarrik irteten uzten ez didatenez

ez dakit non dagoen Afrikak galdutako mapa
Eta orduan amumak lasaitu nau esanez
Santa Barbararen estanpak balioko duela

LILLOT ERREGINA

«Gezurrak emendaturiko artistak,
sentimenduen maiseatzaile miserableak!
Lillot erregina eta bere hamaika maitaleak
amodiotan ari ziren gau amaigabean».
Tristeziaz beterik xuxurlatzen zituen
Karim Bensaidek kolore lizuneko hitzak
Paris-Lyon joan-etorria etengabean
egiten duen bagoi gorrixka batean.
«Dokumentu gabe ibiltzen zen karrikan
batere beldurrik gabe, gauak hirian
farola nagiak piztu bitartean».
Autobus txofer eta periferiako taxistek
aspalditik ezagutzen zuten Lillot erregina,
Lyongo dentista baten alaba.
Baina haren paperak inork ez zituen
zehazki inoiz ezagutu,
gerra osteko ahanzturak irentsi zituen
Marseillako polizia-etxean
enbaxada atzerritar bateko
agregatuarekin harrapatu zutenean.
Harrezkero ez da inon ageri Lillot erregina.

Batzuek uste dute oraino Marseillan bizi dela baina aspaldian inork ez du haren berririk. Azkenengoz Alexandrian ikusi zutela diote, zurrumurruak besterik ez dira.
Hauxe da oroitzen dugun bakarra:
«Lillot erregina eta bere hamaika maitaleak amodiotan ari ziren gau amaigabean» ordularietan oinazea lokartu zen arte.

ITXAROPENA ZAINETIK

Itxaropena zainetik sartzean
ordu luzez telebista aurrean egoten diren
jubilatuen gisakoa sentitzen haiz.
Aurpegia astintzen duk
zoriaren latza uxatu nahian,
mundura ematen duten leihoak itxiz
ikusi nahi ez duenak bezala.
Ametsak izaten ditik jendeak
gau beltzak besterik
ikusten ez ditugun tokian.

«Pelikula zaharretan bezalakoa duk
errealitatea» esan didak,
azpitituluak jartzea ahaztu zaien arren.
Gaiztoen begirakuneak janzten ditiagu
etxe ondoko kioskora heldu bitartean,
baina bueltakoan giltzak lurrera erortzean
mundua erortzen zaiguk.
Gaur ere komunean botaka aurkitu haut.
«Maitasunak kalte egin zidak»
esaten besterik ez duk jakin.

IZAN ZEN UNE BAT

izan zen une bat nitaz oroitu zinena
inolako oroitzapen zehatzik gabe
gogoa asaltatzen duten aitzakiarik gabe
ez konpromisorik ez erreprotxerik
ezer ere esan gabe bat-batean
hurbiltzen den haizearen antzera
ileak nahasiz eta gonak altxatuz
etorri bezala alde egiten duena
jainkoek beren jostetan darabiltzaten
kristalezko kaniketan patua izkiriatzean
mintzatzen diren maitaleen gisan
hitzen beharrizanik gabe
izan zen egun bat nitaz oroitu zinena

AGURRA

Figura geometrikoak, parabolak,
kontzeptu polisemikoak eta
gainontzeko arima erratuak,
inork deitu gabe azaldu dira
bere aldeko hileta elizkizunera.
Kontu handiz, zuhur eta mutu,
inork ez du isiltasuna apurtu,
ezta arraildurazko negar zotinek ere.
Ez dute behar besteko adorerik aurkitu.

LILIAK

Neguko pentsamenduen
gisakoak gara maitea

bizitzaren lorategira erdituak
haize eta ekaitzen artean.

Beraien katu begiekin
beldurrik gabe munduari so

elkar maitatzen duten
lilien antzera.

2

While there is a lower class, I am in it.
While there is a criminal element, I am of it.
While as there is a soul in prison, I am not free.
Eugene Debs

DISTANTZIATIK

Distantziatik astintzen diren paineluak,
airera jaurtikitako muxuak eta bestelakoak
kolkoko poltsikoetan gordetzen ditugunean,
postariek gure karriken izenik ez dakitenez
ez dira ahate saldoak gure leihoetan pausatzen.

Kiribildu ezinik dabil
tximinietako ke urdina
neskatoaren begietan.

Laku gaziek
ez diote lekurik uzten,
arnasa ematen.

Ortzimugarako bidaiotan ez dugu lagunik kausitzen,
ezta ihintzez jantzitako lorerik egunsentira bitarte.
Ilargia lokartu egin zen eta eguzkiari nonbait
ahantzi egin zitzaion oroitzapenak izaten,
egunak pintatzen. Harrezkero euria ari du
katuak amodiotan zebiltzan ilunabar hartan
bezalaxe.

Jendeak ez du
gure maitasunaren berririk,
ezta beharrizanik...

Azken horiek gu girade.
Behintzat hori diote periodikoek.

ITZALAK

Telefonoa gorrotatzen zenuen,
kartazalekin gaizki konpondu.
Ez zinen sekula azaltzen
aurrez erabakitako enkontruetara.

Gutxien espero diren desorduetan
jotzen zenuen gela ezkutuko atea.
Inork ezin zuen ezer esan ispiluez
zu presente egonez gero.

Zure keinu arraroengatik
norbaitek zerbait galdetzean,
kandela argiek marraztutako itzalak
zure atzetik zebiltzala esaten zenuen.

Sarrailetako giltzak zenbatzen,
leiho ertzetatik barrandan,
eskaileretako bonbillak amatatu ahala
propaganda bila ibiltzen zinen buzoietan.

Etxeko ilunpe zarratuan
zirritutik begira geratzen zinen
katuak ere lokartzen zirenean.
Beti erne, mamuak noiz agertuko zain.

Nork sinetsi behar zuen arrazoi zenuela,
kandela argiek marraztutako itzalak
zure atzetik zebiltzala esaten zenuenean.

ULUKA

Leihoetako zirrikituetan
ez dira ametsak kabitzen.
Haize latzak uneoro
errealitatearen ateak astintzen.

Zakurrak uluka aditu zirenean
ihes egin zuten ilusioek.
Atzera begiratu zuten une batez eta
aurreranzko ihesean segitu berriro.

Eroritako zapien bila genbiltzan gu.
Galdutako lagunen bila
nahasi genituen bazter guztiak
nahiz eta esku hutsik bueltatu.

Tatuaia bat gehiago gure baitan,
uhertutako anpuluen ekipaian,
hotzikara eskergabea ezpainetan.
Sekula ailegatuko ez den mezua
bakardadearen korridorean.

Konplizitate diosal bat ere ez
begiraden arnasestuan,
zakurrek usna ez zitzaten
intimitatearen kontuak.
Polizi furgoien artetik
gurutzatu ziren gure sekretuak.

Mota guztietako uniformatuak
inguruan dabiltzanean
ezin ezer esan elkarri,
tren estazioko bozgorailutik
entzungo ez dutenik.

Beti izango da norbait aldamenean
zelatan gure arimen berri izan nahian,
haizearen kontra jarri arren
ezin disimulatuz darien zakur kiratsa.

EZ AL DUZU ADITZEN HAIZEA ADAXKAK ASTINTZEN?

Bataila osteko hondamendiak
bertsio ofizialekin borrokan.
Utopia lurperatu zuteneko lekuak
gure oroimenaren estratan galduak.

Ihintza zure begietan
nireak zirenean zureetan islatu, esan nizun:
«Geralekurik gabeko bidaia amaiezinean
ez dugu kausitzen haurren ametsik, Vladimir,
gutxienez etorkizuna hobea izango dela sinesteko».

Mendebala zer ote zen galdetu zenidan
lubakirik gabe bizitzeaz pentsatuz.
«Ez dago oihartzuna estaliko duen irrintzirik»
erantzuten besterik ez nuen jakin.

Ez al duzu aditzen haizea adaxkak astintzen?
Gaua dator gurera. Leiho ertzetik
sumatzen dira bere pauso leunak.
Izkina eta zirrikitu guztiak ixteko
xuxurlatu digu eguzkiak partitu aurretik.

Bihotz gabeen gobernuak isiltasunaren desterrura
kondenatu zituen arima hautsiak,
bere horretan jarrai dezan gezurraren lege zitalak.
Jada ez dugu hitzetan sinesten,
ezta sikiera ere malkoz eta odolez
izkiriaturiko juramentuzkoetan.

Ahots gabeentzat ez da izango hileta elizkizunik.
Argizarizko otoitzik. Usain arraroko egunik.
Sukaldeko egutegitik eskegitako doluminik.
Periodikoetako argazki horiztaturik. Lerro arterik.

Azken hatsak ene ezpainak musukatu behar
dituenean,
oi! Vladimir, zu zaitut gogoan.
Sosegatuegiak dira ene dardarak zutaz oroitzean,
heriotzaren marmarra aditzean.

Norbaitek zarratu ditzala leihoak,
hotzitzen hasi baita ene barrena.
Itzalak dabiltza hemendik dantzan,
oroimenaren alabak. aieneak xuxurlatzen belarrira.

Hemen daude.
Heldu dira azkenean boteretsuen tanketak.
Heldu dira uniformatuak gau beltzean.
Ailegatu da momentua, gu akabatzeko ordua.
Beldurra hurbildu da testigantza lanetan.

Ailegatu da partitzeko tenorea.
Heriotzaren urratsak korridorean barrena,
hitzordura berant datorren maitalearen gisa.
Pauso hotsak eskaileretan gora.
Laster hasiko dira ate joka.

Lerro bakan hauek norbaitek aurkituko balitu
jakin ditzala hemen gertatuak,
bizitza deritzoten estrata zikin honetan
zoritxarreko bizidunek pairatuak.

Ubeldura kolorekoa egin zaigun errealitatean
gure gorpuak beilatzean, arren, ez negarrik egin

maitasunez bizi izan ginenon alde.
Ez bedi tristatu udaberria presente ez gaudenean.
Elkar ikusiko dugu berriro denboraren harian.

SALMINA POLAVITX

KREMAILERA ZARATAK

gurpilek asfalto gainean
marrazten dituzten
kremailera zaratak

kristaletako paisaian
urtzen diren
begiak

oroitzapenen kontra
zaratarik gabe
kolpatzen diren
euri tantak

hainbestetan
birrindutako paperak
noraezean dabiltzan
begiradetan gordeta

eguna esnatzen ari da
beti bezalatsu
mugaldean marraztuz
bere kolore grisberak

haizeak ferekatzen duen
ilargia
eta kristaletako paisaian
urtzen diren
begiak
eta oroitzapenen kontra
kolpatzen diren
euri tantak

ailegatzen ez diren
begiradetan gordeta

BIRRINDUTAKO ETXALDEAK

Aldez aurretik izkiriatutako kronikak.
Sukaldeetako hozkailuetan
gorriz seinalatutako egunak.

Patrikan daramagun telefono zenbakia.
Sekula ailegatu ez zen gutuna.

Erantzungailu automatikoetako hotsak.
Euripean uluka hasten diren telefono kabinak.

Izenik gabeko kale kantoiak.
Begiradetako sekretuak.

Kresalak herdoildutako ametsak,
sarrailak, utopiaren giltzak eta txanponak.

Gauerdiko txirrinak...
auzokoen begiratuak ateko zirritutik.

Hitzik gabeko mezuak.
Betaurreko hautsiak.
Hamaika aldiz birrindutako etxaldeetan.

OTSAIL GOIZEKO EGUZKI

Izpi doratuak eta
kafe kikarako esne iztilen antzeko
behelainoa mendi magaletan
kotoi itxuraz etzana.

Lupetz bustia eta
elur urtuak orrazturiko zelaiak,
paparra harrotzen duten txoriak,
txikiak, nanoak, ia ikusezinak.

Eskolara artega doazen
haur gosaldu berriak eta
presaz eskutik daramatzaten
gurasoak eta aitona-amonak.

Haize hezea, umela,
sudurretik sartuz
eta barrena jelatuz
arima antzaldatzen duena.

Airean emeki-emeki
ia beldurrez hedatzen den hatsa,
lantegi urrinetako tximinietatik
kaleratzen den kea bailitzan.

Inurriak diruditen langileak
haur jolasetan legez
buztinezko etxetxoak altxatzen,
beste kakanarru batzuk
gordetzeko barrenean.

Hotza, itzelezko hotza,
oin azpietako odola
atxikitzen duena
lurrera, mundura,
jainkoaren patrika hauetara.

Kristalak lausotzen dituen
maitasuna dela esango nizuke
zure ezpainak gertu banitu,
bertan bihotzaren sutondoak
isiotzeko sikiera.

Nahiz eta hodei bakan horiek
zure izena xuxurlatzen didaten,
haizeak astintzen ditu
ene begiak eta bilin-balaunka
jausten zaizkidan malkoak.

KORRESPONDENTZIA

Erlojuetako orratzak lokartzen diren desorduotan,
oinazeak erditzen diren momentu honetan
ametsak bilin-balaunka arrosariotik eroriz,

hasperenak biziberritzen diren une laburrotan,
bihotz zirrikituak izkiriatzen dituzten ordu txikiotan
urtu egiten da ene gogoa zuk utzitako hutsunean.

Gurutzefikatuaren aldekoen malkoak ene
masailetatik lerratzean,
gure ezpainak distantziaren izkinotan iltzatzean
isil-isilik sumatzen zaitut ene barrenean,

aspaldiko egunsenti gozoaren babesean
gure baitako ortzimugak marrazten ditugunean,
korrespondentziazko musu eta besarkada hauetan.

TATUAIA

tatuaia bat ene begietan

gutunetan ageri ez den helbidea
bihotzeko hamazazpigarren tolestura
oroitzapenak izaten zuen ametsa

tatuaia bat ene begietan

harresiz inguratutako kostaldeak ilargian
arratsaldeko bostetan euria egiten duen infernua
iritsi ez diren profetak eta beren telefono zenbakiak

tatuaia bat ene begietan

konplizitaterik gabe leitu ezinezko mezuak
bakardadeak xuxurlatutako sekretuak
ostadarrarekin olgetan pasatako momentuak

tatuaia bat ene begietan
zure izenez izkiriatua

3

Those that I fight I do not hate,
Those that I guard I do not love.
William Butler Yeats

SEINALEA

Seinale baten zain
eman genituen urteak,
eta azkenean gertatu zenean
inor ez zen enkontrura azaldu.
Alferrikako gutunen antzera igarotzen ziren
tranbiak, gorbatadun putreak eta bestelako piztiak,
alboetara begiratzen ez dutenen gisa
paseatzen ziren gure aurrean.

Enkontrurako geratutako izkinan,
inor ageri ez zen eremu hondatuan,
lagunak denboraren arrakaletan
barrena jausi ez ote diren pentsatuz,
ahaztutako oroitzapenen zokondoan
maite ditugunen izenak bilatuz
erlojuetako orratzak patriketan
nola ugertzen diren ikustera jesarri nintzen,
alderdi guztietara begira
geure buruak nondik azalduko ziren zain.

SUGEAK DANTZAN

Sugeak dantzan dabiltza
su goriaren inguruan
saguzarrekin baltseoan
ilunabarrarekin larrutan
izarrak keinuka ari direnean

Zeru osoa hautsi da
gure buruen gainean
Haurrek jolasean
ostikoz jotzen dute ilargia
kristal pusketen antzera

Ileak erre zaizkigu
ametsak izatean
sudurretik odoletan
hasi ginenean bezala
tanta gorriak
komuneko zoru zurian

Gaztelu eskoziarretako
arima errariak baikinen
bakardadearen gerran
izuaren konpainiarekin
norabiderik gabe
alde egiten duen iheslaria

Gaueko izar urduriek
pausoak estutzen dizkiote
egun argiz berriz
ez du babesteko itzalik
Begiratu oskarbian
nola astintzen duen aireak garia

Zalantza izua eta pasio setatiek
aztoratzen gaituztenean
gari garauak sentituko gara
jakin arren bizitzaren zaparrada
arratsa orduko ailegatuko dela egunero

Muino laranjak iluntzean...
lore sikuen gisa hautsiko gara
denboraren orri artean

AZAROKO ARRATSALDE EURITSU BATEAN

Telefonoak jo zuen
—ez zen niretzat—.

Lasai asko nengoen ohean
ateko txirrinak oihuka
zirauen bitartean,
kolpe bortitzak tarteka.

Telefonoak jo zuen berriz
—ez zen niretzat—.

Lasai asko nengoen ohean
Jimi Hendrix entzuten,
azaroko arratsalde euritsu batean
overdossez sabaiari begira
lagun onenaren urtebetetzea ospatzen.

Telefonoak jo zuen
—ez zen niretzat—.

Poliziak atea bota zuen arte.
Egun alaiak, memoria galduak.
Pozik ibili izan ginen
materiala zegoen bitartean,
paretetako afixek barrenean
eztanda egiten zigutenean.

IHESI GABILTZA

kotxe bonba bat
leherrarazi dute ilargian
hala esan dute behintzat
goizean goiz irratian

harrezkeroztik badira
menderatu gabeko
mende gehiegi
menderakaitzen sorterrian

ihesi gabiltza
ihesi
aterpe eta
esperantza barik

berun pusketen aurrean
isiltasunaren etxean
bakardadearen baltsean
arnasestuen gau amaigabean

poliziak segika ditugu
eternitatearen izkinan
demokraziaren tiro hotsak
aditzen diren bitartean

ihesi gabiltza
ihesi
aterpe eta
esperantza barik

ZAUDE LASAI

Zaude lasai
ezer ez da amaituko

munduak ez dio
bat-batean jiratzeari utziko

egunak ez dira
guregatik esnatuko

zaude lasai
ezer ez da betirako

ezta momentu xume
bakan eta ezdeus baterako

patriketan kabitzen den
zoriona ez da guretzako

zaude lasai
ezer ez da aldatuko

iretargi eta eguzkiak
ez dira guregatik larrituko

ez gaituzte faltan botako
ez zaituzte estrañatuko

AZKEN MUGETAN

Zabaldu ezin diren ateak
aurkitu nituen isiltasunaren
korridorean, zapaldu ahala
xafla hotsak ateratzen dituzten
burdinazko eskailera ilunak.

Eternitate guztien pisua daukaten
lauza beltzak, ate infinituak,
bonbilla hautsien labirintoak
jagoten gelditu ziren...
gure agonia ttipiari barrezka
infernuko zaindariak
aritzen diren legera.

BIZITZAREN HEGIAN

koldarrik handienak
gatibatu zituen
mundu honetako
adore guztiak

bere aurkako
juramentatuei
begiz begi
so egiten zienean

lasai asko
egia hutsalenak
izkiriatzen duen
berdintasunean

isiltasunaren eleak
izu zurian aditzean
saguak marrumaka
libertitzen zirenean

KEN DIEZAZUKET

Bizia ken diezazuket.
Gutxi iruditzen al zaizkizu
zure gauak eta egunak,
familia eta lagunak,
aisia eta lanbidea,
ametsak eta saminak,
iragana eta etorkizuna?

Dena ken diezazuket,
eta hala ere
irribarre egiten duzu
lotan zaudenean.

INTERROGATORIOAK

galdetu didate
hodei ilargi izarrez
gorrotoaz eta
lili goroldio zuhaitzez

galdetu didate
ihintz erreka aintzirez
lotsaizunaz eta
itsasoko abestiez

galdetu didate
karrika etxe zuloez
bakardadeaz eta
adiskideen irriez

galdetu didate
faltan ditudan guztiez
gau eta egun laztana
zutaz galdetu didate

DENBORA IRRISTATZEN DEN LEKUETAN

Aipatu ditugu, laztana,
jainkoak eta haien presentzia,
gutunen erromantikotasuna eta
kartazalen barnean
senti dezaketen klaustrofobia,
amodioaren lotsa eta deribatuak,
ispiluak eta hauen bestaldeak,
amilondoa eta bere ertzak,
gaua eta bertako eguzki guztiak,
gizakia eta dagozkion hutsuneak
osotasunez jantziak.
Aipatu ditugu
zure ezpainak eta haien isilune bustiak
ene ametsetatik eskegiak,
izakia eta sentitzen duen bakardadea,
gure arima eta bertan goldaturiko
zimur, desertu eta paradisuak.
Hitz egin dugu, laztana,
denbora irristatzen den lekuetan
elkarri ezer esan gabe askotan.

Hitz egin dugu
izara artean
elkarren gertu izatekotan.

4

I could be bounded in a nut shell and
count myself a king of infinite space,
were it not that I have bad dreams.
HAMLET

BEHELAINOZKO BEGIRADAK

Su hartzen ari da
ene bihotza
eguzkiari esnatzea
ahantzi zaion parajeotan,

non amuarrainek
hegaz egiten duten
txantxangorriaz
dantzatu nahian.

Oin ttipiak,
ibiltzearen poderioz kasik
ortzimugara ailegatu zirenak,
izoztu egin dira.

Bihotz-begiekin leitzeko
indarrik ezean —esan dute:
gaizkile nanoek amatxoren
magalean kausitu nahi dute aterpea

munduaren bekatutik
gorde asmoz,
sagutxo izutuen antzera
ezkutatu ezinik dabiltzanean.

Izarren murmurioan
maitasunak izkiriaturiko
Transilvaniako beleak
ailegatzen dira

gutunetan zientoka,
ene begietako kontutxoek
zure begietan habia egiteko
herensuge lokartuen gisa.

Horren ñimiñoak dira
haien ametsak
ezen ezin kabitu diren
ludian barrena.

Behelainozko
begiradotan
marrazturik daude
bazter guztiak,

sekretuan esnatzen ari diren
maitasun fidelak,
gure ezpainetan
iltzaturikoak bezala.

URRINETIK

lautada arrotz honetan
gauak hirian pizten dituen argi laranjen gisa
suzko ipurtargiak ikus ditzaket
haizeak dantzatzen dituen kandela argiak bailiran
ilunabarrera erditzen

...urrinetik begiratuta
jende nanoaren sutondoak diruditen liliak
gauak bere patriketan isiotzen dituen pospoloak
infernu arrotzen tximinietatik
lurrera erditzen

oinazeak erditzen diren desorduotan
urrinetik dakusat piztiaren itzala
lautada arrotz honetan
aipatu nahi ez dudan hiri horretan
horren ezezaguna gertatzen zaidan
gertuko mundu honetan

PAMPHLETS

Pamphlet hutsak...

Aireak nahasitako amaraunak.
Leitzeko lerro begirik gabeak
ailegatzen ez diren gutun izkiriatu ezinezkoentzat.
Eternitatearen orratzetan ugertutako segundoak.
Egutegi ozpinduetatik eskegitako kontuak.
Behin eta berriro bere baitako liturgian
aireak nahasitako amaraunak.

Pamphlet hutsak...

Eliz dorreko zikoinen habia abandonatuak.
Argizaritan margotutako eremuak.
Sartalde minberatuen odol lohiguneak
eta heriotzaren otordurako kanpaiak.
Gure bihotzen paretak estutzen dituzten
mugarriz pikatutako ortzimugak.
Isiltasunaren behelainotan erditutako hasperenak
bakardadearen malko irakurgaitzetan iltzatuak.

Pamphlet hutsak...

EURIAK BUSTITAKO ILUNABARREN ANTZERA

Intziri bakan baten alde
eman nahi nuen bizitza
nahiz eta ene deiadarra
inork aditu nahi ez zuen.

Hauts arteko parabolen baitan
usteltzera kondenatu ninduten.
Bata zuridunen labirintoan barrena
noraezean ibili nintzen
hamaika mendetan zehar,
maratilarik gabeko ateak kolpatzen
munduaren azken mugetara
ailegatzen ziren pasilloetan galduta.
Ibiltzearen poderioz
ttipitu egin ziren ene oinak
euriak bustitako ilunabarren antzera,
faroletako argi laranjak bakarrik
hurbilduz lekuko lanetan aritzera.

Deserriko gutunekin
egunek sartalderantz
partitu beharra izan zuten,
argazki horituetako irribarreak
gure begiradetan odolusten
ageri ziren bitartean.
Ezer esan gabe alde egin zuten
maiteen genituenekin,
distantziaren berezko
behelainotan desagertu ziren,
istant minbera batean,
gure bihotzeko arnasa guztiak.

Hala ere noizean behin
telefono seinaleak entzuten ditugu
konplizitateak xuxurlatzen dizkigun
argizariz jantzitako hitzetan.
Mezu sekretuak jasotzen ditugu
ametsen altzoan lokartzerakoan,
gure begiak kausitzen direnean
marraztu gabeko enkontruetan,
irribarreek distantziatik
izkiriatzen dituzten une horietan.

HURBILTASUNAREN BEREZKO EREMUETAN

Sugarraren urdin
laranja eta ilunak
ezagunak gertatzen zaizkit
ene gogoaren tolesturetan

zigarreten ke dantzak
marrazten dituen mamuen antzera
solaskideak ditut
ene bakardadean

bizitzak izkiriatzen dituen bazter horietan
gure buruak antzematen ditugun behelainoetan
hurbiltasunaren berezko eremuetan
ikara guztiak...
euri tantek erortzean senti litzaketenak bailiran

ULRIKE MAITEA, EZ LOTU LURREKO BIZI HONETARA

Frankfurt, ekainak 1

Euria ari du
mugaz bestaldean,
gure bihotzetako
hilerri horretan.

Norbait gomutatuko da
Andromedako bidaztiez
ispiluetan hauen hutsuneak
faltan sentitzean,
ezer esan gabe,
amatatu egiten diren
kandela argien antzera.

Mamuek
izen-abizenak omen dituzte,
laztana.

Minutu bateko loria izan genuen
eta bat-batean akabatu gintuzten
mingain ustelen azpian.

Mundua mundu denetik
arrakalez josita da beti ageri.

Gainontzeko idiota guztiak lez
etsai ginen bihurtu azkenerako.

Denak bildu ziren
gure kontra ekiteko.
Mitxeletak, labezomorroak,
disidenteak eta enparauak,
denak juntatu ziren
gure buruez beste egiteko.

Heriotz bizitan
erditutako martiriak gara.
Ez esan heriotzari
ikusi gaituzula.
Ez egiatan sinetsi
sinesgarriak direnak.

Ez zure barrenerako gorde
arima mikazten dizuna.
Ez lotu lurreko bizi honetara.

Utopia hil digute
labezomorroek eraikitako paretek.
Itxaropena asasinatu digute
isiltasunaren maindireek.
Euripe desolatuetako kabinak,
trenbide ezezagunetako
maitale abandonatuak,
denak batera lurperatu dituzte
deitura gabeko hilerrietan,
marmolezko zapata kaxetan.

Heriotzaren otordurako
seinalea eman digute kanpaiek,
eskaileretatik behera
bilin-balaunka jausitako arrosarioek,
argizariz jantzitako egunek
gure mixeria aldarrikatzean,
gure omenezko liturgia hauetan
juntatu garenean.

Ametsik gabe bizi nahi nuke,
sentitu barik
errealitatearen sarrailak lehertu beharra.
Eta sekula itzartzen ez diren
sugarretako errautsak legez
hil.

«Horrela jarraituz gero, akaso
hilak itzartuko dira bizira»
leitzen genuen
indiferentzi aurpegiz
begiratzen ziguten hormetan.

«Insurrekzioaren tenorea
islatzen da zure begietan»
xuxurlatzen zenidan.

Eskusatu nazazue
ez banaiz azaltzen.
Ohiko zenbakiei itaundu
nire berri.

Berant ailegatu ginen
amets hautsien eremura,

sekula gomutatzen ez garen
paraje horietara.

«Ez ezazu negar egin
iretargiarengatik»,
ez baititu aintzat hartzen
zure alferrikako malkoak.

Heriotza asasinatu dugu
guk ernegatuok,
domu-santuko bezperagetuok,
larrituta bizi garenok.

Marasma sareek ehundutako
miserietan kulunkatzen ziren
beraien patuak,
gezurrak nolanahi adabatutako
jostura lehertuak.

Istant minberatu batean desagertu ziren
aire bolada honi dagozkion orbelak.

Berekoikeriak erailda,
oroitzapenik ez den lekuetan

lurperatu behar izan genituen,
gure barrunbeetako
basamortu hotzenetan.

Proustek esango lukeen bezala,
«Badakit dena izkiriatua dagoela
baina errepikatzea komeni da».

...Caveant consules!

Ez baitago heriotzarik
gu gatibatzeko,
Ulrike maitea,
ez lotu lurreko bizi honetara,
denbora ez baita
gure begietatik eskegi sekula.

ANDREAS

EMAIZKIDAN 5 MINUTU

emaizkidan 5 minutu
beren segundo eta guzti
isiltasunaren paretak apurtzeko
gure ezpainek elkar sentitzeko

emaizkidan 5 minutu
eternitatea pintatzeko
lotsatu gabe
maite haut! esateko

emaizkidan 5 minutu
behingoz bada ere
amets egiteko

5

You must remember this:
a kiss is still a kiss,
a sigh is just a sigh;
the fundamental things apply,
as time goes by.

And when two lovers woo,
they still say «I love you»,
on that you can rely;
no matter what the future brings,
as time goes by.

Herman Hupfeld

EGUN BERRI BAT ETORRIKO DA

moketa urdina

egurrezko kaxak
estufa zaharraren ondoan

laranja koloreko dirdira
ohe ondoko lanpararekin urtzen

lau oholez osatutako mahaia
aulki ziztrin baten aldamenean

orriak zirriborroak eta
arropa zikina non-nahi

3 edo 4 argazki poster 1
eta norbaiti ostutako hitzak

gutun bakan batzuetan tristura
mukizapien alboan part botata

irratiko abesti herdoilduak soilik
lau pareta zuriren artean

holakoa ote da errealitatea oherakoan
hemen ez direnentzat?

egun berri bat etorriko da
sukaldeko egutegian agertzen ez bada ere

katuak amodiotan ari dira
leiho ondoko patioan

alokairuzko parajeetan

BADITUT

Baditut
begirik kausitzen ez duten begiak,
lagunak eta lagunak ez direnak,
etsaiak eta ezer ez direnak.

Baditut
isunak eta zitazioak,
inork ez dakizkien kausa irekiak
aislazio eta hipokresia sozialaren izenean.

Baditut
mezu sekretuak eta konplotak,
hizkera ulertezinak eta
periodikoetako titularrak,
ahoz ahoko gezurrak eta
inozoek asmatutakoak.

Baditut
militar eta boteretsuen
amorru eta mendeku nahia
orbainetan izkiriatuak,
polizien eskuburdinak eta tiroak
oroimenean iltzatuak.

Baditut
eskatzen dituzten
hitz eta zenbaki guztiak.
Hainbeste gauza ditut
ezen ez dudan ezer.

STEINERREK ZUTAZ GALDETU DIGU

Steinerrek zutaz galdetu digu,
eskumuinak emateko Malinowskiri.
Zuhamuxka beilegien magalean
itxarongo zaituela,
eta eskutitz ikusezinak
lanbroarekin izkiriatzearen
premia aipatuz alde egin du.

Altxaliliak, ametsak eta
bestelako atarramentuak
begiratu batekin denak batera
hodeietan marraztu dituenean,
ostadarraren kuleroak eskegitzera
iretargia azaltzen denean
berarekin akordatzeko.

Bide ertzetan arnasa galduta gabiltzanean,
mugazainen kasernek ortzimuga
behin eta berriro pikatzen dutenean,
«izan ginena inoiz ez ahazteko»

xuxurlatu du irribarretsu,
eguzki amandrea erditzen den
lurraldeetarantz partitu baino lehen.

Gure begiradetako bazter lorrindu hauetan
bere hutsunea betirako iltzatua utzi digu.
Altxaliliak, ametsak eta
bestelako atarramentuak,
begiratu bakan batekin denak batera
hodei artean marraztu dituenean.

Eternalak bihurtzen diren segundo purtzilak
erlojuetan kabitu ezinik dabiltzanean
zuhamuxka beilegien magalean
itxarongo zaituela,
kurloiak beti bezala gaubeiletan
intzirika iratzarritakoan.

Steinerrek zutaz galdetu digu,
ohiko bere diskrezio ikusezinarekin
zutaz galdetu digu.

MAMUEK BAKEAN UTZ GAITZATEN

Maracaiboko portu ondoan
mozkortu ginen tekila merkez,
urdanga eta marinel zaharren kontuak entzuten,
tabernatik atera gintuzten arte.
Armada atzerritarren banderak baikinen
kolpatu gintuen lurraren kontra
trapu panamarra zeraman ontziko eskifaiak.

Periodiko saltzaileak urrutiko parajeetan
gertatzen ziren bonbardaketen, gerrateen eta
kalamitateen berri bakarrik ematen zuen
errenta ez ordaintzearren auzokideak
kalera bota zituzten ditxosozko egunean.

Karrikan behera dagoen ile-apaindegiko
iragarkien aurrean geratuta zeuden mutikoak,
adi-adi pelikuletako damei joranez begira,
poltsikoetan eskuak igurzten zituzten bitartean.

Eta gure amuma agiraka zebilen beti,
autotzar hura erosi genuenean lez.

Oraindik gauerdian whiskiz horditu
eta pilulak hartzen ditugu
barrenak lasaitu asmoz,
haiek guztiak ahazteko,
bizitza deritzogun estrata honetan
mamuek bakean utz gaitzaten,
34. autobusean gauero etxeratzean
lo geratzen den ene bihotzeko
neskato laztanaren antzera...
hiriko etxe-sailetan ezkutatzen diren
piztiekin amets gaiztorik ez izateko.

HARI FIN BATEKIN

Hamaika bataila galdu nituen
lautada hotz haietan.
Oinazez jantzi ziren,
gorputz honi dagozkion bazterrak.
Behelainotan abaildu zen gogoa,
tristeziaz akituz arima zahar hau.

Arrazoi guztien jabe sentitu nintzen
amodioa gatibatu nahian.
Errudunak zenbatzen zituzten nire hatzek
kaletik paseatzen zirenak seinalatuz bezala.
Nolabaiteko mendekuen egarri ase ezinez,
uholdez gainezka zegoen neure barrena.

Lur honetako paradisuak
zapata kaxetan gorde nitzakeelakoan,
buztinezko erresumak eraiki nituen,
«errautsezko katedralak» eta
bestelako utopia imajinaezinak
eguzki eta izarrak harrapatu asmoz.
Dena... zure ausentzia iltzatu nahian.

Kriseilu hauetatik eskegitako sugarrak
ez daitezen nireak izan.

Kristalezko botila baten barruan
gatibatu daitekeelakoan zure irria,
munduaren jirak nahi nituen geratu,
izar guztiak hari fin batekin
zuretzako lotu. Neronek nuenean
gure bihotzen arteko hari fin hura apurtu.

KOMENIGARRIA

goizero baraurik zaudela
zazpi gari hazi jango dituzu

haziak hiru egunez
uretan beratzen eduki behar dira

egunen beste edalontzi hartu
bi hatzen besteko urez bete

eta bat edan ostean
haziak mamurtu eta irentsi

oroimena lantzen lagunduko dizu
eta gomutara etorriko zaizu

behinola lagun batek esana:
gogoratzea bezain komenigarria da ahaztea

IZENAREN IZANA

hau da gure herria
milaka kikara hautsien labirintoa
arraildura josien negar malkoa
esnedun uniformatuen goizalba esker txarrekoa

hau da ene herria
utopiaren deitura ezabatuen odol lohigunea
atzokoz gaur...
etorkizun iraganez betetako egutegia

hau da gure herria
zeruko izar dantzarien
erakusleiho bihotz eztia
ilunpetako karriketako argien gorria

hau da ene herria
nahi baino gehiagoko argi urdinez
antzaldatutako gau iluna
haur batek barruan zeraman amets guztia

hau da ene herria
asmatu gabeek xuxurlaturiko
mezu sekretu hura
inork jakin ez dakien sentimendu miresgarria

hau da gure herria
akaso noizbait ahantzi zitzaigun oroitzapena
gure begiez bestaldera
barnean gordeta daramaguna

hau da ene herria
euskaldun sortu izanaren patua
giza haragiz propio izateko
jainkoak sortutako bekatua

hau da gure herria
esker onez jakitea
zer den
mundura sortua izatea

hau da ene herria
Euskal Herria deritzogun bazterra
kartografo eta eskribauek
hainbeste gorroto duten izana.

ARGI ILUNEN TARTE HONETAN

argi ilunen tarte honetan
ametsak lotzen diren hari finean
bizitza deritzogun jainkoen kanika jolasetan
belatzak zeruak zeharkatzen dituenean
sagu ikaratuen begiz so egiten diegun bazterretan
        geure buruak kausitzen abiatzen gara
        ispilu hautsien labirintoetan barrena
        Aliceri eskutik hartuta
korrika alde egiten dugu estropezuen bidezidorretan
gogoaren kriseiluak erdi itzalita ageri direnean
hego haizeak zelaietako belarra orrazten
                diharduenean

* * *

utopiaren parajeak odolaren hesteetan
        aurkitu nahian ari da poeta
ardo mikatzetan izkiriaturiko
paperak bailiran bere begiak
non ludiaren eleak abesten dituzten erroiek
        ilargi beteko gauetan

isil-isilik daude
itsas labarretako olatuak eta mendietako haranak
nonbait gizonak bere jitea marraz dezakeelakoan
zaldi izutuen intzirietan

suaren printzez egunsentiak zizelatu zirelako ustean
kandela argien dantzan isiotzen direnean paradisuak
nekeza da gizonaren pausoa
artega barrena antzaldatzen dion hatsa bailitzan
ninien beltzean jagole bezala gelditzen den piztia

herensugeari begiz begi so egin zion hartan lez
tristeziaz gordetzen ditu igarotako egunak
eguzkiari maitasun kantuak eskainiz
zeru-lurretako biztanleak
elkarren amorruz eta ezin ikusiz
esnatuko ez diren esperantza pittin batekin

* * *

izara arteko batailetara mugatuz
gizasemeen borroka latzenak
larruaren fereketan isiotuz

izan ditzaketen asmoak
beraien gogoan mahatsaren zukuak izanik
lurra bustiko duten kolore bakanak
hilkutxen beharrizanik izan ez dezan munduak
ezta sikiera bere patriketan ere
gordeko gaituzten iluntze horietan
maite minetan hiltzen direnen antzera
lur emango digute

ESNATZEAN

goizean esnatzean
izarak bezala
tolesturez beteak daude
gure ametsak